


Euskal biztanleek, bizitzarekiko asetasunari “oso ongi” deritzote

Norberaren ongizateari eragiten diotenetan, osasuna eta langabezia nagusi

Bizitzarekiko asetasunari 7,1eko nota jartzen diote euskal biztanleek, Norberaren ongizate-inkestatik abiatuak Eustatek landutako daten arabera. Eragiketa aurreneko aldiz argitaratzen da eta informazio zehatza ematen da Euskal AEko biztanleen ongizate-pertzepzioaz, eginiko galderek batez ere dimentsio materialaz bestelako alderdiak neurtzen dituztelarik.

Bizitzarekiko asetasuna, oro har, eskatzen da; egoera ekonomikoa, etxebizitza eta aisialdia, pertsona eta erakundeekiko konfiantza, harreman pertsonalak, bizi garen inguruko segurtasuna eta lan-asetasuna, pertsona okupatuaren kasuan.

1. grafikoa: Norberaren ongizatearen adierazleen batez besteko balorazioa. 2014



Iturria: Eustat. Norberaren ongizate-inkesta NOI

EUROSTATen arabera, 2013an, 28-EBko biztanleen bizitzarekiko asetasuna 7,1 zen, gurean bezalaxe. Notarik onenak: Danimarkak, Finlandiak, Suediak (8,0). Suspentsio bakarrak Serbiak (4,9) eta Bulgariak (4,8).

INEren datuetan (2013) espainiarrek 6,9 jartzen diote asetasunari. Notarik onenak Balearretan (7,3) eta Nafarroan (7,2). Txarrenak: Gaztela eta Leonen (6,5), Galizian (6,1).

Euskal AEn notarik onena (7,7) pertsona osasuntsuek; txarrena (4,7) osasun eskasekoek.

Adierazleak okerrera egiten du bai osasuna eskasten denean, bai adinarekin ere: 16-24 urte bitartekoek 7,6; 65etik aurrerakoek 6,9.

Nota hobetzen dute prestakuntza-mailak, etxeko ekonomia onak eta familia harremanen indarrak.

Gizon eta emakumeen artean alde handirik ez. Herrialdeetan: Gipuzkoan bizi direnek 7,2; Araban 7,1; Bizkaian 7,0.

Jaioterriari begiratzuz gero, batez bestekoaren azpitik Euskal AEtik kanpo (6,9) edo atzerrian (6,8) jaioek.

Langabetuen artean notarik baxuenetakoa (5,9).

1. taula: Norberaren ongizatearen adierazleen batez besteko balorazioa, egoitza lurralde historikoaren arabera. 2014

	Euskal AE	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Bizitzarekiko asetasuna	7,1	7,1	7,0	7,2
Bizitzaren balioa	7,5	7,5	7,6	7,5
Aisialdiarekiko asetasuna	6,5	6,6	6,4	6,6
Etxebizitza- eta ingurumen- asetasuna	7,2	7,2	7,1	7,2
Etxeko ekonomiarekiko asetasuna	6,4	6,4	6,3	6,6
Gogo aldartea	6,5	6,7	6,3	6,7
Harreman pertsonalak	7,5	7,4	7,5	7,5
Pertsonen konfiantza	6,3	6,4	6,2	6,4
Botere publikoekiko konfiantza	3,4	3,4	3,4	3,3

Iturria: Eustat. Norberaren ongizate-inkesta NOI

***Bizitzaren Balioak* notarik onena, 7,5**

Bizitzaren balioaren nota 7,5 batez beste; biztanleen %56,1entzat "handia", %3,8entzat "txikia".

Emakumeek (7,6) hobexeago gizonak (7,4) baino. Bizkaian bizi direnek baloratzen dute gehien (7,6) haien bizitza. Araban eta Gipuzkoan 7,5.

Pertsona okupatuak 7,7; ez-aktiboak 7,5; langabetuak 6,9.

Adierazleak okerrera egiten du bai osasuna eskasten denean, bai adinarekin ere; nota hobetzen dute prestakuntza-mailak eta familia harremanen indarrak.

28-EBko adierazlearen batez bestekoa 7,4; gure inguruan: Espainia eta Portugalen 7,5; Frantzia 7,1.

***Harreman pertsonalak* (7,5) ongien baloratutako bigarren alderdia**

Harreman pertsonaletan nota hobetzen dute prestakuntza-mailak, etxeko ekonomia onak, osasunak eta familia harremanen indarrak. Notarik onena (7,7) 16-24 urte bitartekoak; behera egiten du adinarekin, baina zertxobait hobera (7,4) 65 urtetik aurrera.

Langabeek (7,2) harreman pertsonal okerragoak okupatuek (7,5) eta ez-aktiboek (7,4) baino. Alde handirik ez sexuen edo lurraldeen artean.

Atzerrian jaioek (7,3) notarik txarrena jaioterriari begiratzuz gero.

Etxebizitza- eta ingurumen- aresetasuna handia da ia kolektibo guztietan

Etxebizitzaz eta ingurumenaz (7,2) osasun oso onekoek notarik (7,5) onena; ondoren egoera ekonomiko onekoek (7,4) eta 65 urtetik aurrerakoek (7,3). Gizonak (7,2) hobexego emakumeak (7,1) baino; atzerrian, Araban eta Gipuzkoan jaioak (7,2) hobeto Bizkaian (7,1) baino.

Balio baxuena (6,7) langabeek.

Gogo aldar-teari biziki eragiten dio antzemandako osasunak

Gogo aldar-tearen batez bestekoa 6,5 da; baxuena osasun txar edo oso txardunek (4,9); altuena (7,0) osasuntsuek. Bigarren baxuena (5,8) langabeek.

Adierazleak okerrera osasuna eskasten denean; nota hobetzen dute prestakuntza-mailak eta familia harremanen indarrak.

Bizkaian bizi direnek (6,3) baxuena. Araban eta Gipuzkoan 6,7. Aldarterik txarrena Bizkaian (6,4) eta atzerrian (6,2) jaioek.

Adierazleak nota hobea du gizon artean (6,9; emakumeek 6,3). 35-64 urte bitartekoek 6,4; 16-24koek (6,7) eta 65etik gorakoek (6,6) hobeto.

Adindunak asean aisialdiarekin

Aisialdiarekiko batez besteko aresetasuna, 6,5. 65 urtetik gorakoek 7,4, altuena, eta 35-49 bitartekoek baxuena (5,7). Ez-aktiboek nota ona (7,1); langabeek 5,8.

Emakumeek 6,4; gizonak 6,5. Bizkaian bizi direnek 6,4; Araban eta Gipuzkoan 6,6.

Bestekin ez bezala, ikasketarik gabekoek nota hobea (6,9) goi-mailako ikasketadunek (6,2) baino.

2013an, 28-EBn, aisialdiarekiko aresetasuna 6,7. Notarik onenak: Danimarkak (7,8), Finlandiak (7,7). Txarrena: Bulgariak (5,7). Espainian 6,6, zertxobait hobeto Euskal AEn baino.

Langabeak gutxienik asean etxeko ekonomiarekin

Etxeko ekonomiarekiko aresetasunean (6,4), notarik txarrena (4,3) langabeek; onena (7,2) "ona" deritzotenek.

Gipuzkoan bizi direnak aseago (6,6), Araban (6,4) edo Bizkaian (6,3) baino. Gipuzkoan jaioak aseago (6,8) Araban (6,5), Bizkaian (6,3) eta batez ere atzerrian (5,6) baino.

Asean, 16-24 urte bitartekoak (6,7); ondoren 65etik gorakoak (6,4).

Nota hobetzen dute prestakuntza-mailak eta antzemandako osasunak.

Pertsonekiko Konfiantzan, notarik onena gazteek

16-24 urte bitartekoek (6,7) notarik onena; adierazleak, oro har, 6,3. Biztanleen %27,9k konfiantza "handia"; %12,9k "txikia".

Emakume eta gizonen konfiantza bera (6,3). Bizkaian bizi direnek 6,2; Araban eta Gipuzkoan 6,4. Konfiantzarik gutxien (5,9) langabeek eta osasun eskasekoek (5,8).

Botere publikoekiko konfiantzan (3,4) suspentso, notarik txarrena

Biztanleen %1,3k konfiantza "handia" du botere publikoetan; %69,2k "txikia".

Inongo biztanle-taldetan ez dute "nahiko" lortzen, eta notarik onena (4,2) atzerrian jaioek.

Emakumeen konfiantza 3,5; gizonena 3,3. 25-34 urte bitartekoek dute konfiantzarik txikiena sistema politikoan, judizialean eta polizian (3,1).

Adierazle honetan, berriz ere, notarik txarrenak familia-harreman gutxi dutenek (2,9) eta langabeek (3,0).

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62